

Fritz Lang Amerikan

Fritz Lang en América



2026 APIRILAREN 21ETIK EKAINAREN 11RA
DEL 21 DE ABRIL AL 11 DE JUNIO

FRITZ LANG AMERIKAN

Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbaoren Zinimatekak Fritz Lang izenez ezaguna den Friedrich Christian Anton Lang-en filmografia berrikusiko du, Amerikako etapa ardatz izango duen ziklo batean. Nazismotik ihesi, zinemagile alemaniarrek lurralde berri bat aurkitu zuen sorkuntza lantzeko, Estatu Batuetan eta Hollywooden. Hogei film baino gehiago zuzendu zituen, bere burua berrasmatu, eta krimen eta noir zinemaren oinarriak ezarri zituen.

Programa honetarako hautatutako filmek Lang-en filmografian errepikatzen diren gai batzuetan sakontzen dute: pertsonak duen hauskortasun morala sistemaren aurrean. Diktadura batean, egunkari baten erredakzioan, harreman sentimental batean zein prozesu judizial batean egon, beren filmetako protagonistak mugitzen diren unibertsoan, egia nahasgarria da eta justizia zalantzarikoa.

Zinimatekak aurretik ere proposatu ditu Fritz Lang-i buruzko zikloak, baina bereziki egokia da orain etapa honetara itzultzea. Gaur egun,

muturreko diskurtsoak berpizten ari dira eta pitzadurak ikusten dira instituzio demokratikoetan. Horiek horrela, Fritz Lang-en zinemak sekula baino gaurkotasun gehiago du. Bere lanak gogora ekartzen digu egiturazko indarkeria, manipulazio kolektiboa eta bidegabekeria ez direla abstrakzio historikoak, baizik eta errepika daitezkeen dinamikak. Ziklo honek ibilbide bat egin nahi du zinema klasikoaren etapa erabakigarri batetik eta, gainera, gonbidapen bat da orainari begiratzeko XX. mendeko zinemagilerik handienetako baten buru-argitasun gupidagabearekin.

Bestalde, Thea von Harbou-ren *Metropolis* (1925) eleberria 2026an gertatzen da, Lang-ek 1927an zuzendutako izen bereko film mitikoaren oinarria. Zikloa hasiko da, zientzia fikzio modernoaren sorburua den *Metropolis* filmaren emanaldi batekin.

Estatu Batuetan hamarkada bat baino gehiago igaro eta sei film egin ondoren, proiektu berri batean murgildu zen, herrikide zuen eta erbesteratuta ere bazegoen Bertolt Brecht-en eskutik.

Antzerkigile eta poeta ospetsuarekin batera, *Hangmen Also Die! (Borreroak ere hil egiten dira)* (1943) lanaren gidoia egin zuen. Lang-ek patu gisa aurkeztu zuen halabeharra, faxismoaren aurkako borrokari egindako ekarpen pertsonal ugarietako baten bidez.

Zinema beltzeko *Scarlet Street* filma (1945) umiliazioari eta egiturazko indarkeriari buruzko tratatu bat da. Argi erakusten digu nola hondatzen duten obsesioak eta printzipiorik ezak gizabanako arrunt bat, eta justizia, sarritan, egiaren mende baino gehiago kasualitatearen edo itxurakerien mende dagoela.

Programak *Rancho Notorious* (1952) ere barne hartzen du, Lang-ek Hollywooden filmatu zituen hiru western-etako azkena. Agian, pertsonalena, eta Marlene Dietrich aktoreen zerrendan duena.

Clash by Night (1952) zinema beltzeko film bat da, krimenik gabekoa, eta melodramatikoa, amodiozko triangelu batean fokuratzen baita. Darion errealismo soziala nabarmentzen da, Clifford Odets-ek ekarria, filma haren libretoan inspiratuta baitago.

While the City Sleeps filmean (1956), krimena aitzakia bat da ikusleak komunikazio-talde boteretsu baten zirrikituetan sartzeko. Kazetaritzako erredakzio bat gudu-zelai korporatibo bihurtuta. Anbizio profesionalak harreman pertsonal intimoenak ere usteldu ditzakeela islatzen du.

Beyond a Reasonable Doubt (1956) filmarekin itxiko da zikloa, Lang-en Amerikako aldiko azken filma. Gero, Alemaniara itzuli, eta zinema egiten jarraitu zuen. Lang-ek hasi bezala amaitu zuen Amerikako etapa, sistema judizialaren hutsune eta akatsen aurkako salaketa gordin eta gogor batekin.

FRITZ LANG EN AMÉRICA

La Zinemateka de Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao revisita la filmografía de Friedrich Christian Anton Lang, conocido como Fritz Lang, en un ciclo centrado en su etapa americana. Huyendo del nazismo, el cineasta alemán encontró en Estados Unidos un nuevo territorio creativo y en Hollywood, donde dirigió más de una veintena de películas, el lugar donde reinventarse y sentar las bases de su cine criminal y noir.

Las películas seleccionadas en este programa ahondan en algunos de los temas recurrentes en su filmografía en torno a la fragilidad moral de la persona frente al sistema. Tanto en una dictadura, como en la redacción de un periódico, en una relación sentimental o en un proceso judicial, las y los protagonistas de sus películas se mueven en un universo donde la verdad resulta equívoca y la justicia, dudosa.

No es la primera vez que la Zinemateka propone un ciclo sobre Fritz Lang, pero volver hoy esta etapa resulta especialmente pertinente. En un contexto contemporáneo donde resurgen los

discursos extremistas y las instituciones democráticas muestran fisuras, el cine de Fritz Lang se revela más actual que nunca. Su obra recuerda que la violencia estructural, la manipulación colectiva y la injusticia no son abstracciones históricas, sino dinámicas que pueden repetirse. Este ciclo propone, así, no solo un recorrido por una etapa decisiva del cine clásico, sino también una invitación a mirar el presente a través de la lucidez implacable de uno de los grandes cineastas del siglo XX.

En 2026 transcurre además la novela *Metropolis* (1925) de Thea von Harbou, base de la mítica película homónima dirigida por Lang en 1927. El ciclo arranca con un pase de *Metropolis*, origen de la ciencia ficción moderna.

Tras más de una década y seis películas filmadas en Estados Unidos, se embarca en un nuevo proyecto de la mano de su compatriota y también exiliado Bertolt Brecht. Junto con el célebre dramaturgo y poeta firma el guion de *Hangmen Also Die! (Los verdugos también mueren)* (1943) en el que Lang presenta la

fatalidad como destino a través de una de las numerosas contribuciones personales a la lucha contra el fascismo.

El noir *Scarlet Street* (1945) es un tratado sobre la humillación y la violencia estructural. Muestra cómo la obsesión y la ausencia de principios pueden arruinar a un individuo corriente, y que muchas veces la justicia depende más de la casualidad o de las apariencias que de la verdad.

El programa incluye también *Rancho Notorious (Encubridora)* (1952) el último de los tres westerns que rueda Lang en Hollywood, quizá el más personal y que cuenta con Marlene Dietrich en el elenco.

Clash by Night (Encuentro en la noche) (1952) es un filme noir sin crimen, melodramático, por su enfoque en un triángulo amoroso, y con un fuerte componente de realismo social, aportado por Clifford Odets, en cuyo libreto se inspira la película.

En *While the City Sleeps (Mientras Nueva York duerme)* (1956), el crimen es el pretexto para adentrar al público en los entresijos de un poderoso grupo de comunicación. Una redacción periodística convertida en un campo de batalla corporativo refleja cómo la ambición profesional puede corromper incluso las relaciones personales más íntimas.

El ciclo se cierra con *Beyond a Reasonable Doubt (Mas allá de la duda)* (1956), la última película de su período americano antes de regresar a Alemania donde siguió haciendo cine. Lang se despide de su etapa estadounidense de la misma manera que la comenzó, con una denuncia cruda y dura a las lagunas y los defectos del sistema judicial.



EGUNA / DÍA	🕒	FILMA / PELÍCULA
21 APIRILA, ASTEARTEA ABRIL, MARTES	18:30	<i>Metropolis</i> 1927 Z/D: Fritz Lang 153'
28 APIRILA, ASTEARTEA ABRIL, MARTES	17:00	<i>Hangmen Also Die!</i> 1943 Z/D: Fritz Lang 131'
30 APIRILA, OSTEAGUNA ABRIL, JUEVES	19:00	<i>Hangmen Also Die!</i> 1943 Z/D: Fritz Lang 131'
5 MAIATZA, ASTEARTEA MAYO, MARTES	17:00	<i>Scarlet Street</i> 1945 Z/D: Fritz Lang 97'
7 MAIATZA, OSTEAGUNA MAYO, JUEVES	19:30	<i>Scarlet Street</i> 1945 Z/D: Fritz Lang 97'
19 MAIATZA, ASTEARTEA MAYO, MARTES	17:00	<i>Rancho Notorious</i> 1952 Z/D: Fritz Lang 89'
21 MAIATZA, OSTEAGUNA MAYO, JUEVES	19:30	<i>Rancho Notorious</i> 1952 Z/D: Fritz Lang 89'
26 MAIATZA, ASTEARTEA MAYO, MARTES	17:00	<i>Clash by Night</i> 1952 Z/D: Fritz Lang 105'
28 MAIATZA, OSTEAGUNA MAYO, JUEVES	19:30	<i>Clash by Night</i> 1952 Z/D: Fritz Lang 105'
2 EKAINA, ASTEARTEA JUNIO, MARTES	17:00	<i>While the City Sleeps</i> 1956 Z/D: Fritz Lang 99'
4 EKAINA, OSTEAGUNA JUNIO, JUEVES	19:30	<i>While the City Sleeps</i> 1956 Z/D: Fritz Lang 99'
9 EKAINA, ASTEARTEA JUNIO, MARTES	17:00	<i>Beyond a Reasonable Doubt</i> 1956 Z/D: Fritz Lang 80'
11 EKAINA, OSTEAGUNA JUNIO, JUEVES	19:30	<i>Beyond a Reasonable Doubt</i> 1956 Z/D: Fritz Lang 80'

Eta gainera Mediateka BBK-n...

Zinematekaren programazioa Mediateka BBKra zabalduko da, ziklo honetako filmengurua. Gainera, espazio horretan filmak eta liburak kontsultatu eta eskatu ahal dira. Informazio gehiago 16. orrialdean.

Y además en la Mediateka BBK...

La programación de la Zinemateka se expande a la Mediateka BBK donde se pueden consultar y solicitar prestadas películas y libros relacionados con el programa. Más información en la página 16.

Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegia eta golem.es 5€ (4€ AZ Txartelarekin)

Entradas: Taquillas de Cines Golem Alhóndiga y en golem.es 5€ (4€ con Tarjeta AZ)

METROPOLIS (1927)



153' • Z/D: Fritz Lang • G: Thea von Harbou • A/R: Brigitte Helm, Gustav Fröhlich, Alfred Abel, Rudolf Klein-Rogge

2026. urtea. Metropolis hiri erraldoian gizartea bi klasetan banatzen da: aberatsek boterea eta ekoizpen-bideak dituzte eta luxuz inguratuta bizi dira; langileak baldintza lazgarrietan bizi dira, lurpeko ghetto batean, hiriaren bihotz industrialia dagoen tokian.

Joh Fredersen (Gustav Frohlich) gizon ahalguztidunak hiri oso kontrolatzen du. Haren seme Freder (Alfred Abel) jatorri apaleko Mariarekin (Brigitte Helm) maitemindu da. Hala, egun batean, langileen lan-baldintza latzak ezagutu ditu. Behe-klaseek Maria gurtzen dute, eta neskatxak sentimentu onak eta maitasuna aldarrikatzen ditu. Semeak aitari ohartaraziko dio litekeena dela langileak matxinatzea.

Año 2026. En la megalópolis de Metrópolis la sociedad se divide en dos clases: los ricos que tienen el poder y los medios de producción, rodeados de lujos, y los obreros, condenados a vivir en condiciones dramáticas reclusos en un gueto subterráneo, donde se encuentra el corazón industrial de la ciudad.

Un día Freder (Alfred Abel), el hijo del todopoderoso Joh Fredersen (Gustav Frohlich), el hombre que controla la ciudad descubre los duros aspectos laborales de los obreros tras enamorarse de María (Brigitte Helm), una muchacha de origen humilde, venerada por las clases bajas y que predica los buenos sentimientos y el amor. El hijo entonces advierte a su padre que los trabajadores podrán rebelarse.

APIRILAK 21, ASTEARTEA
MARTES, 21 DE ABRIL
18:30

BA AL ZENEKIEN...

2008an, 16 mm-ko kopia ia oso bat aurkitu zuten Buenos Airesko Zinema Museoa, estreinatu zenetik galduta zeuden 25 minutu ere bazituen.

SABÍAS QUE...

En 2008 se encontró en el Museo del Cine de Buenos Aires una copia casi completa de 16 mm, incluyendo 25 minutos perdidos desde su estreno.

HANGMEN ALSO DIE! (1943)



131' • JBGA (ingeleza) / VOSE (inglés)

Z/D: Fritz Lang • **G:** John Wexley, Bertolt Brecht, Fritz Lang • **A/R:** Brian Donlevy, Anna Lee, Walter Brennan, Gene Lockhart, Dennis O'Keefe, Alexander Granach, Margaret Wycherly

Praga, 1942. Nazien okupazioaren garaian, Txekiako erresistentziaren sare bateko kidea den Svoboda doktoreak Reinhard Heydrich hil du, Hirugarren Reich-eko buruzagi gorenetakoa bat, "Pragako harakina" izenez ezagutua. Doktoreak Novotny irakasle iraultzailearen etxean hartuko du babesa, irakaslearen alaba Mascha-ren laguntzari esker.

Praga, 1942. Durante la ocupación nazi, Reinhard Heydrich, uno de los máximos dirigentes del Tercer Reich conocido como "el carnicero de Praga", es asesinado por el doctor Svoboda, miembro de una red de la resistencia checa. El doctor se refugia en casa del profesor Novotny, un antiguo revolucionario, gracias a la ayuda de Mascha, la hija de este.

APIRILAK 28, ASTEARTEA
MARTES, 28 DE ABRIL
17:00

APIRILAK 30, OSTEguna
JUEVES, 30 DE ABRIL
19:00

BA AL ZENEKIEN...

Ekoi-zen-taldean egindako lehiaketa batean sortu zen behin betiko titulua. No Surrender, We Killed Hitler's Hangman eta Trust the People izenburuak aztertu zituzten, Hangmen Also Die! aukeratu aurretik.

SABÍAS QUE...

El título definitivo surgió de un concurso entre el equipo de producción. Se consideraron nombres como No Surrender, We Killed Hitler's Hangman y Trust the People antes de decidirse por Hangmen Also Die!.

SCARLET STREET (1945)



97' • JBGA (ingeleza) / VOSE (inglés)

Z/D: Fritz Lang • **G:** Dudley Nichols

A/R: Edward G. Robinson, Joan Bennett, Dan Duryea, Jess Baker, Margaret Lindsay, Rosalind Ivan

New York, 1934. Christopher Cross kutzazain apal bat da, gaizki ezkondua, pintura du pasio bakarra. Gau batean, Kitty March ezagutu du, neska saiatu eta erakargarri bat. Harekin maiteminduko da eta margolari arrakastatsua dela sinestaraziko dio. Koadroek diru asko balio dutela sinetsita, neskak eta bere mutil-lagunak —Johnnyk, eskrupulurik gabeko tipo batek— aukera aprobetxatu nahi dute gizagaixoa esplotatzeko.

Nueva York, año 1934. Christopher Cross es un simple cajero, infelizmente casado, cuya única pasión es la pintura. Una noche conoce a Kitty March, una atractiva buscavidas de la que se enamora y le hace creer que es un pintor de éxito. La chica y su novio Johnny, un tipo sin escrúpulos, aprovechan la ocasión para intentar explotar al pobre hombre, pues creen que sus cuadros valen mucho dinero.

MAIATZAK 5, ASTEARTEA

MARTES, 5 DE MAYO

17:00

MAIATZAK 7, OSTEAGUNA

JUEVES, 7 DE MAYO

19:30

BA AL ZENEKIEN...

Scarlet Street hiru estatutan egon zen debekatuta aldi batez, Hays Kodea aplikatuta, hau da, Hollywoodeko filmei aplikatutako zentsura moraleko arau multzo zorrotz bat, MPAAK (Estatu Batuetako zinema ekoizleen elkarteak) ezarria.

SABIÁS QUE...

Scarlet Street estuvo prohibida temporalmente en tres estados por el Código Hays, un estricto conjunto de normas de censura moral aplicado a las películas de Hollywood implantando por la MPAA (Asociación de productores cinematográficos de Estados Unidos).

RANCHO NOTORIOUS (1952)



89' • JBGA (ingeleza) / VOSE (inglés)

Z/D: Fritz Lang • **G:** Daniel Taradash • **A/R:** Marlene Dietrich, Arthur Kennedy, Mel Ferrer, Lloyd Gough, William Frawley, Gloria Henry, Jack Elam, George Reeves.

Vern Haskell mendebalde osoa zeharkatzen ari da bere emaztegaia bortxatu eta hil zuen gizonaren bila. Baten batek esan dio agian Chuck-a-Luck-en aurkituko duela. Arrantxo hori mota guztietako gaizkileen gordelekua da, eta Altar Keane kantaria da jabea. Susmorik piztu gabe arrantxora sartzeko, gaizkile-plantak egiten ditu. Alabaina, leku horretan ezin hautsizko arau bat dago: debekatuta dago galderak egitea.

Vern Haskell recorre todo el Oeste en busca del hombre que violó y mató a su prometida. Alguien le dice que quizá lo encuentre en Chuck-a-Luck, un rancho que sirve de escondite a toda clase de criminales y cuya propietaria es la cantante Altar Keane. Para entrar en el rancho sin despertar sospechas, se hace pasar por un forajido. El problema es que en ese lugar hay una norma inviolable: está prohibido hacer preguntas.

MAIATZAK 19, ASTEARTEA
MARTES, 19 DE MAYO
17:00

MAIATZAK 21, OSTEGUNA
JUEVES, 21 DE MAYO
19:30

BA AL ZENEKIEN...

Filmaren bilbea Ken Darby-ren *The legend of chuck-a-luck* kantuko ahapaldietan eta leloan oinarritzen da. William Leek interpretatutako abesti hori da protagonista eta publikoa pasiozko western honetan gidatzen dituen haria.

SABÍAS QUE...

La trama de la película se apoya en las estrofas y estribillo de *The legend of chuck-a-luck*, de Ken Darby, interpretada por William Lee. La canción es el hilo conductor que guía al protagonista y al público a través de este western pasional.

CLASH BY NIGHT (1952)



105' • JBGA (ingeleza) / VOSE (inglés)

Z/D: Fritz Lang • **G:** Alfred Hayes

A/R: Barbara Stanwyck, Paul Douglas, Robert Ryan, Marilyn Monroe

Mae Doyle (Barbara Stanwyck) jaioterrira itzuli da, Monterreyko (Kalifornia) arrantza-herri txiki batera. Bertan, kontserba-fabrikan lan egiten duen neska gazte baten (Marilyn Monroe) adiskide egingo da. Arrantzale atsegin bat ere ezagutuko du (Paul Douglas), eta harekin ezkonduko da. Hala ere, pixkanaka, herriko beste gizon batek (Robert Ryan) erakarriko du. .

Mae Doyle (Barbara Stanwyck) vuelve a su pueblo natal, una pequeña población pesquera de Monterrey (California). Allí se hace amiga de una joven (Marilyn Monroe) que trabaja en la fábrica de conservas. También conoce a un amable pescador (Paul Douglas) con el que se casa, aunque poco a poco se sentirá atraída por otro hombre del pueblo (Robert Ryan).

MAIATZAK 26, ASTEARTEA

MARTES, 26 DE MAYO

17:00

MAIATZAK 28, OSTEGUNA

JUEVES, 28 DE MAYO

19:30

BA AL ZENEKIEN...

Filmak izar bihurtu zuen Marilyn Monroe, eta Lang-ekin izan zuen kolaborazio bakarra da. Rol txikia bada ere, aktoreak interpretazio-dohain guztiak erakutsi zituen, neska apal eta kaskarinaren ohiko airearekin.

SABIÁS QUE...

La película supuso el lanzamiento al estrellato Marilyn Monroe y su única colaboración con Lang. Aunque es un papel menor la actriz despliega todas sus dotes interpretativas con su habitual aire de chica sencilla y un poco tarambana.

WHILE THE CITY SLEEPS (1956)



99' • JBGA (ingeleza) / VOSE (inglés)

Z/D: Fritz Lang • **G:** Casey Robinson • **A/R:** Dana Andrews, Rhonda Fleming, George Sanders, Howard Duff, Thomas Mitchell, Vincent Price, James Craig

Sentinel-eko kazetariei gutxi falta zaie egunkariaren edizioa amaitzeko. Korridoreetan eta mahaietan, azpijokoan eta azpikerian aritzen dira egunkariko zuzendari-postua eskuratzeko. Bitartean, emakume gazteak hiltzen dituen gaizkile batek mezu bat uzten dio poliziarri, ezpain-margoz idatzita, hilketa bakoitzaren ondoren. Lehia basatia hasi da egunkarian: "ezpain-margoaren" hiltzailearen harrapaketa berri lortzen duen lehenak abantaila eramango du. Anbizioren gabeko erredaktore bat idazkari batez maiteminduta dago, eta idazkaria konbentzitzen du, hiltzailea erakarriko duen amu gisakoa izateko, jakina, poliziek zainduta.

Los periodistas del Sentinel están a punto de terminar la edición del periódico. En los pasillos y en las mesas se conspira y se intriga para hacerse con la dirección del diario. Mientras tanto, un criminal que se dedica a matar mujeres jóvenes deja a la policía, tras cada asesinato, un mensaje escrito con pintalabios. En el periódico se establece una feroz competición: el primero que consiga la noticia de la captura del asesino "del pintalabios", tendrá todas las de ganar. Un redactor sin ambiciones consigue convencer a una secretaria de la que está enamorado para que sirva de cebo a fin de atraer al asesino, contando, por supuesto, con vigilancia policial.

EKAINAK 2, ASTEARTEA
MARTES, 2 DE JUNIO
17:00

EKAINAK 4, OSTEAGUNA
JUEVES, 4 DE JUNIO
19:30

BA AL ZENEKIEN...

Bilbea 1950eko hamarkadaren erdian kokatzen da, telebista masa-baliabide gisa hedatzen hasi zela. Lehen garai horietako telebista-giroan egindako «artisauro» lanaren erretratuak da filmeko elementurik bitxienetako bat. Erredakzioa, bulegoak eta teletipoen aretoa ikusita, film hau baliotsua da kazetaritzaren mundua aztertzeko.

SABÍAS QUE...

La trama se sitúa en el despegue de la televisión como medio de masas a mitad de los años 50, y uno de los elementos más curiosos es el retrato del trabajo «artesanal» en el ambiente televisivo de estos primeros tiempos. La redacción, los despachos y la sala de teletipos hacen de esta película un valioso análisis del mundo del periodismo en sí misma.

BEYOND A REASONABLE DOUBT (1956)



80' • JBGA (ingeleza) / VOSE (inglés)

Z/D: Fritz Lang • **G:** Douglas Morrow • **A/R:** Jesse Metcalfe, Michael Douglas, Amber Tamblyn, Joel David Moore, Orlando Jones, David Jensen, Lawrence P. Beron

Egunkari-editore batek erakutsi nahi du froga zirkunstantzialen eraginkortasuna oso urria dela. Hala, Tom Garrett suhiarekin (Dana Andrews) hitz egiten du, hiriko fiskal nagusiaren gaitasun eza frogatzen lagun diezaion. Plana bat betez, froga batzuk aurkeztuko dituzte, Tomi gau-klubeko dantzari baten hilketa leporatzeko. Tom errudun jo ondoren, editorea fiskala umiliatzen saiatuko da. Tomek plana onartuko du, baina dena korapilatzen hasiko da. Ondoko gertaeren ondorioz, errudun bakartzat joko dute eta aulki elektrikoaren ertzean egongo da.

Un editor de diarios quiere demostrar que es poca la eficiencia de las pruebas circunstanciales y habla con su yerno Tom Garrett (Dana Andrews) para que le ayude a demostrar la ineptitud del fiscal general de la ciudad. El plan es dirigir una serie de pruebas que incriminen a Tom hacia el asesinato de una bailarina de club nocturno. Una vez se encuentre a Tom culpable, su futuro suegro intentará humillar al fiscal. Tom acepta el plan, pero las cosas comienzan a complicarse cuando los hechos que ocurren después le ponen como único culpable y al borde de la silla eléctrica.

EKAINAK 9, ASTEARTEA
MARTES, 9 DE JUNIO
17:00

EKAINAK 11, OSTEAGUNA
JUEVES, 11 DE JUNIO
19:30

BA AL ZENEKIEN...

Fritz Lang-ek Estatu Batuetan egin zuen azken filma 20 egun eskasetan filmatu zuen, oso azkar, RKOren aurrekontu txikiko ekoizpen baterako ere bai. Hollywoodeko urrezko garaiko bost estudio handienetako bat izan zen RKO.

SABIÁS QUE...

La última película de Fritz Lang en los Estados Unidos se rodó en apenas 20 días, un tiempo récord incluso para las producciones de bajo presupuesto de RKO, uno de los cinco grandes estudios de la época dorada de Hollywood en esa época.

LABURDURAK

A: Aktoreak

G: Gidoia

Z: Zuzendaritza

JBGA: Jatorrizko bertsoia gaztelaniaz azpiztitulatua

ABREVIATURAS

R: Reparto

G: Guion

D: Dirección

VOSE: Versión original con subtítulos en castellano

SARRERAK

5€ (4€ AZ Txartelarekin)

Zinemako txarteldegian eta golem.es

ENTRADAS

5€ (4€ Con Tarjeta AZ)

Taquillas del cine y golem.es

-
- Filma proiektatu baino 15 minutu lehenago irekiko dugu aretoa. Gomendatzen dizugu minutu batzuk lehenago etortzea.
 - Zinematekako programazioan azken orduko aldatetak egon daitezke. Ezinbestekoa bada, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaok beretzat gordetzen du eskubidea programatutako jarduerak bertan behera uzteko, aldatzeko edo atzeratzeko, aldez aurretik azkunazentroa.eus-en jakinarazita.
 - Programa hau etxera eramatea gomendatzen dizugu.
 - Gure programazioari buruzko informazioa jaso nahi baduzu, jar zaitez harremanetan Azkuna Zentroarekin.
 - Abrimos la sala 15 minutos antes de la proyección de la película. Te recomendamos que acudas con unos minutos de antelación.
 - La programación de Zinemateka está sujeta a cambios de última hora. En caso de fuerza mayor, Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao se reserva el derecho a cancelar, modificar o aplazar las actividades programadas, previa comunicación pública en azkunazentroa.eus
 - Te recomendamos que te lleves a casa este programa.
 - Si quieres recibir información de nuestra programación comunícate con Azkuna Zentroa.

+ info: azkunazentroa.eus



Zinematikaren programazioa Mediateka BBKra zabalduko da, ziklo honetako filmen inguruan. Gainera, espazio horretan filmak eta liburuak kontsultatu eta eskatu ahal dira.

La programación de la Zinemateka se expande a la Mediateka BBK donde se pueden consultar y solicitar prestadas películas y libros relacionados con el programa.

FILMOGRAFIA / FILMOGRAFÍA

Lang, Fritz

El doctor Mabuse (Dr. Mabuse, der Spieler)

Lang, Fritz

M, el vampiro de Düsseldorf

Lang, Fritz

La muerte cansada (Der müde Tod)

Lang, Fritz

La mujer en la luna (Frau im Mond)

Lang, Fritz

Los Nibelungos (Die Nibelungen)

Lang, Fritz

Spione

Lang, Fritz

El testamento del dr. Mabuse (Das testament des dr. Mabuse)

Solo se vive una vez (You only live once)

Lang, Fritz

El tigre de Esnapur (Der Tiger von Eschnapur)

Lang, Fritz

La tumba india (Das indische Grabmal)

Lang, Fritz

Clandestino y caballero (Cloak and dagger)

Lang, Fritz

Los contrabandistas de Moonfleet (Moonfleet)

Lang, Fritz

Espíritu de conquista (Wester Union)

Lang, Fritz

Furia (Fury)

Lang, Fritz

Gardenia azul (The blue gardenia)

Lang, Fritz

El ministerio del miedo (Ministry of fear)

Lang, Fritz

La mujer del cuadro (The woman in the window)

Lang, Fritz

Secreto tras la puerta (Secret beyond the door)

Lang, Fritz

Los sobornados (The big heat)

Lang, Fritz

House by the river (La casa del río)

BIBLIOGRAFIA / BIBLIOGRAFÍA

Delalande, Arnaud / Liberge, Éric

Fritz Lang, el maldito

Yermo ediciones, 2024

Coma, Javier

Los sobornados; Cautivos del mal

Dirigido por, 1999

Varios autores

Cult Books, 2025

Gómez García, Juan Antonio

Poner el dedo en la llaga... moral, política y derecho en el cine de Fritz Lang

Sindéresis, 2019

Jensen, Paul M.

Sombras en el cine de Fritz Lang

JC Clementine, 1999

Jiménez González, Marcos

Fritz Lang y el expresionismo

Asociación Shangrila Textos Aparte, 2022

Colección Guías para Ver y Analizar Cine

"M" El vampiro de Dusseldorf

Nau Llibres, 2021

Pedraza, Pilar

Fritz Lang. Metrópolis

Paidós, 2000

Töteberg, Michael

El cine de Fritz Lang

T&B, 2013

Töteberg, Michael

Fritz Lang

T&B, 2006

Usón Forniés, Fernando

Fritz Lang: la telaraña del destino

Providence, 2020

Marías, Miguel; Garci, José Luis (ed.)

FRITZ LANG UNIVERSVM

Notorious, 2016

JARDUERAK / ACTIVIDADES

Ziklo horrekin lotuta, Mediatekako [Zinema-elkarrizketen](#) programazioak zuzendari alemaniarra izango du ardatz, maiatzeko saioan. Espresionismo alemaniarren eta Hollywoodeko zinema beltzaren narratibaren arteko fusioa hobekien islatzen duen filmetako bat eskainiko du.

**ZINEMA-ELKARRIZKETAK.
ARGIAK, KAMERA... EKIN!**

MAIATZAK 19, ASTEARTEA

FRITZ LANG

Scarlet Street (Perversidad) (1945)

18:30-19:30 / Mediateka BBK: TK101

3 €/ AZ tartela duten pertsonak, sarrera dohainik webgunean izena eman ondoren. Lekuak bete arte

Conectada con este ciclo, la programación de [Diálogos de Cine](#) en la Mediateka centra la sesión de mayo en la figura del director alemán a través de una de las películas que mejor refleja la fusión del expresionismo alemán y la narrativa del cine negro de Hollywood.

**DIÁLOGOS DE CINE.
LUCES, CÁMARA ¡ACCIÓN!**

MARTES, 19 DE MAYO

FRITZ LANG

Scarlet Street (Perversidad) (1945)

18:30-19:30 / Mediateka BBK: TK101

3€ / Personas con Tarjeta AZ: entrada libre previa inscripción en la web. Hasta completar aforo

AZKUNA ZENTROA, ZINEMAREN LEKUA BILBON EL LUGAR DEL CINE EN BILBAO

Film Sozialak

Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia / Festival Internacional de Cine Invisible

Zinemakumeak gara!

Emakumeek zuzendutako zinema erakustaldia / Muestra de cine dirigido por mujeres

ZINEBI

Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiak
Festival Internacional de Cine Documental y Cortometraje de Bilbao

Zinexit

Giza Eskubideen Zinema Erakustaldia / Muestra de Cine y Derechos Humanos

FANT

Bilboko Zinemaldia Fantastikoa / Festival de Cine Fantástico de Bilbao

Zinemateka

Programazio egonkorra zinema klasiko eta garaikideko zikloekin
Programación estable con ciclos de cine clásico y contemporáneo

Zinemaldia

Donostia Zinemaldia Azkuna Zentroan / Donostia Zinemaldia en Azkuna Zentroa

Zinegoak

Bilboko LGTBIQ+ Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdia
Festival Internacional de Cine y Artes Escénicas LGTBIQ+ de Bilbao

Cines Golem Alhóndiga

Zinemarekiko konpromisoa urte osoan
Compromiso con el cine todo el año

GURE ZINE PROGRAMAZIOA EZAGUTU NAHI DUZU? ¿QUIERES CONOCER NUESTRA PROGRAMACIÓN DE CINE?

Harpidetu Zinemalagunak komunitatean eta zentroan antolatzen diren ikus-entzunezko ziklo, proiektzio eta jardueren berri izan.

Izena eman hemen:

Únete a la comunidad Zinemalagunak y mantente al día de los ciclos, proyecciones y actividades relacionadas con la creación audiovisual que se organizan en el Centro.

Inscríbete en:



azkunazentroa.eus/es/quieres-conocer-nuestra-programacion-de-cine

azkunazentroa.eus

info@azkunazentroa.eus

PLAZA ARRIQUIBAR, 4 -48010 BILBAO

944 014 014



B

Bilbao

gizartea eta kultura garaikidea
sociedad y cultura contemporánea

azkunazentroa.eus

AZKUNA
ZENTROA
ALHÓNDIGA
BILBAO